



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko abenduaren 4an

122 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (3. or.).
- Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena. Erretiratutako osoko zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru Legea, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeko buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoen gaineko zerga gisa ordaindutako kuoten kenketari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Foru Lege proposamena, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).

C SAILA:

Planak, Komunikazioak eta Programak:

- Nafarroako etorkinak gizartean integratzeko plana (12. or.).
- Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Erriberan bertaratzeko unibertsitate-ikasketak ezartzea nahi duela. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Adierazpen politikoa, Bake Nobel saridun eta UNESCOren borondate oneko enbaxadore Rigoberta Menchú Tum andreak, Guatemalan behin eta berriz gertatzen diren giza eskubideen kontrako erasoak salatuz, Entzutegi Nazionalean aurkeztu duen eskaerari sostengua emateko. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Udako Euskal Unibertsitatearen inguruko zenbait jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (15. or.).
- Galdera, sare publikoko liburutegien ordutegiari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (16. or.).
- Galdera, Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (17. or.).
- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (17. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuaren egoerari buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko Bularretako Patologia Zerbitzurako kontsulta zain daudenen zerrendei buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontseiluko kide bat, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari dena, izendatzea (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Batasuna Parlamentuko taldeek ondoko foru lege proiektuari osoko zuzenketa bana aurkeztu zioten: “Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena”.

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran, aipatu foru lege

proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzorde-ra igorriko da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena

ERRETIRATUTAKO OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proiektuari osoko zuzenketa bat aurkeztu zion: “Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena”.

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako

osoko zuzenketa erretiratu duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Osoko zuzenketa 2001eko urriaren 2ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran, saltoki handietarako zerga bat sortzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako hiri-ereduaren ezaugarri historikoe-tako bat merkataritza-jarduera garrantzitsua edukitzea da. Merkataritza-jarduera hori hiriko bizitza dinamizatzeko eta lurzoru nahiz eraikuntzaren erabilera ezberdinak orekatzeko elementu garrantzitsuenetarikotzat jotzen da, halako heinean non beheko solairuan saltokiak egoteak Mediterraneo-eremuan berezko hirigintza-eredua sortu baitu. Eredu horretan, merkataritzak jarduera ekonomikoari eusten laguntzen du, biziaren beharrei erantzuten die, eta topagune nahiz harremangune bilakatzen da. Familia-enpresa txikiz osaturiko enpresa-jarduera bat da, eta lanpostu egonkorra sortzen ditu; jarduera ekonomikoaren esparruan garrantzi handia dauka.

Azkenaldi honetan, banaketa- eta salmenta-enpresa handien etorreraren ondorioz, gure hirietako merkataritza-eredua aldaketa funtsezkoa pairatzen ari da. Enpresa horiek penetrazio ekonomikorako ahalmen handia daukate, eta merkataritzaren arloko ohiturak eta egitura, batetik, eta lurralde-antolamenduko eredua, bestetik, haien eragina jasaten ari dira. Izan ere, merkataritza-jarduera hirigunetik kanpoaldera bultzatzen ari dira, eta horrek hiriguneko eremuak pixkanaka narriatzea ekartzen du –horiek leheneratzeko, inbertsio publiko handia behar da–. Saltoki handi horiek kokatzeko, urbanizaturiko eremu berrietako

lurzorua behar izaten da, eta komunikazio-azpiegiturak ere bai, ibilgailuen joan-etorriak posible egiteko. Halaber, ingurumena kaltetzen da, eta euren inguruan hirigintza-igurikapenak sorrarazten dituzte.

Instalazio horiekin izandako esperientziak erakusten du berehalako trafiko-gorakada handiak izan ohi direla, errepideak gainezka egotea, errepideak neurri handian hobetu beharra, era guztietako inmisioen ondoriozko kutsadura, errepide-sareak egokitu eta mantentzeko inbertsio publikoko beharrezan berriak, eta kostu sozial eta ekonomikoak, ingurumenak eta hiriaren zentroko merkataritza-jarduerak pairatzen duten kaltearen ondoriozkoak. Hori guztia dela-eta, administrazio publikoak inbertsio handiak egitera behartuta egoten dira; izan ere, jarduera ekonomiko horrek, erosketa-ohiturak ez ezik, bizimoduak, hiriaren kalitatea eta bertako zerbitzuen antolaketa ere aldatzen ditu, eta hortik zenbait gizarte-kostu erarortzen dira.

Gizarte guztiari hain ondorio eta kostu sozial eta ekonomiko handiak ekartzen dizkion ekonomia jarduera mota horri zerga bat ezartzea zilegi da. Ezin da onartu jarduera horretatik etekinak lortzen dituztenak euren jardueraren kostuak ingurumenari, lurraldearen antolamenduari, azpiegiturari eta hiriko bizitarari jasanarazten saiatzea. Kanpo-eragin horien orde, kostuen barnekotasuna lortu behar da. “Fiskalitate berde” deritzonaren ildoan, xedea hauxe da: merkataritza-eremu handiek kokaleku eta etekin handien iturri daukaten erkidegoari ordain bat ematea, hain zuzen ere, azpiegiturak, ingurumenak, lurralde-antolamenduak, hirigune tradizionalak eta horien bizitzak eta jarduera ekonomikoak haien ondorioz jasaten dituzten eraginaren ondoriozko kostu ekonomiko eta sozialen truke. Hirigune tradizionalak dagokienez, pixkanaka hondatzen ari dira. Merkataritza-jarduera menpean daukatela, gizarteak azpiegitura eta zerbitzuetarako eginiko inbertsio handiez baliatzen da euren lehiakortasuna; hori dela-eta, zen-

troaren eta kanpoaldearen arteko lurralde-orekari lagundu behar diote, hiriguneetako barnealdeko eta kanpoaldeko merkataritza-jardueren artekoari.

Helburu horiek lortzeko bitarteko bat fiskalitate-az kanpoko tributu bat eratzea da. Xede jakin bati loturikoa litzateke, haren bidez lorturiko baliabideak aipatu diren jardueretarako (lurraldea eta sektorea berriro orekatzea) aplikatuko bailirateke. Nafarroako Foru Komunitateak badauka horrelako tributu bat sortzeko eskumena, tributu-autonomia erabatekoa baitauka, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikulua ezarritakoaren arabera. Halaber, lurralde-antolamenduaren (44.1 artikulua), ingurumenaren (57. artikulua) eta barne-merkataritzaren (56.1.d artikulua) arloetan ere eskumena dauka.

Legeak hamar kapitulu, hamazazpi artikulua, xedapen gehigarri bat eta azkeneko bi xedapen ditu. Lehen kapituluaren ezartzen dira legearen xedea eta aplikazio-eremua, eta adierazten da dirusarrerak helburu zehatzei loturik egonen direla, merkataritzako eremu eta saltoki handien jarduerak lurralde antolamenduan, ingurumenean, azpiegituretan eta hiri-zentroetako jardueran dauzkan eragin negatiboak ordaintzeko. Bigarren kapituluak zerga-gaia, horren salbuespenak eta subjektu pasiboa arautzen ditu. Zerga-oinarria, likidazio-oinarria, tasa eta tributu-tasa hirugarren kapituluaren zehazten dira. Laugarren kapituluak zergaldia arautzen du, eta, bosgarrenak, zergaren kudeaketa eta zergadunen erroldaren ezarpena. Kudeaketa-, ikuskapen- eta dirubilketa-egintzen berrikuspina eta araubide juridikoa seigarren eta zazpigarren kapituluaren arautzen dira.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea eta aplikazio-eremua.

Lege honen xedea saltoki handien gaineko zerga bat sortzea da. Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean ezarritako guztiei aplikatuko zaie zerga hori.

2. artikulua. Zergaren xedea.

Merkataritza-eremu eta saltoki handien ahalmen ekonomikoari ezartzen zaio zerga; izan ere, horiek kanpo-eragin negatiboak sortzen dituzte, ez dutelako euren gain hartzen gizartearen bizitzari eragiten dioten kostu ekonomiko eta sozialak ordaindu beharra; batez ere, honako esparru hauetakoak: hiriguneetako egituraketa eta jarduerak, lurralde-antolamendua, ingurumena eta azpiegitureak.

3. artikulua. Baliabideen lotura.

Zerga honen bidez lorturiko dirusarrerak lotuak egonen dira hiriguneak birgaitzea, horietan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzea eta ingurumena nahiz azpiegiturea-sareak hobetzea xedetzat duten jarduketa-programen prestaketa eta exekuzioa ordaintzera.

II. KAPITULUA

Zerga-gaia, salbuespenak eta subjektu pasiboa

4. artikulua. Zerga-gaia.

1. Zerga-gaia txikizkako salmentan diharduten eta behar den merkataritza-baimena duten saltoki eta merkataritza-eremu handi eta indibidualen jardura eta funtzionamendua da; hain zuzen ere, hiriguneetan eta bertako jardueretan, lurralde-antolamenduan, ingurumenean eta azpiegituretan eragiten dutelako.

2. Saltoki indibidual handiak dira halakotzat jarduteko baimena jaso dutenak, salmentarako eta produktu eta zerbitzuen erakusketarako 2.500 metro koadro baino gehiago izateagatik, Iruñean eta Iruñerrian eta 12.000 biztanle baino gehiagoko udaletan baldin badaude, edo 1.500 metro koadro baino gehiago izateagatik, Nafarroako Foru Komunitateko gainerako udaletan baldin badaude.

5. artikulua. Salbuespenak.

Zergaren aplikaziotik salbuetsirik egonen dira lorezaintzan eta ibilgailuen, eraikuntza-materialen, makineriaren eta industri horniduren salmentan diharduten merkataritza-eremu edo saltoki indibidual handiak.

6. artikulua. Subjektu pasiboa.

Zergaren subjektu pasiboa 4. artikulua definituriko saltoki edo merkataritza-eremu indibidual handiaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoa da, kontuan izan gabe saltoki kolektibo handi batean kokaturik dagoen ala ez.

III. KAPITULUA

Zerga-oinarria, likidazio-oinarria, karga-tasa eta kuota

7. artikulua. Zerga-oinarria.

Zerga-oinarria saltoki handi indibidualaren gutzitiko azalera da, metro koadrotan adierazia. Azalera hori honako kontzeptuek osatua izanen da:

a) Merkataritza-ekipamenduei buruzko berriazko legediaren araberrako salmenta-azalera, azalera salbuetsiko 2.499 metro koadrotan murriztua, Iruñean eta Iruñerrian eta 12.000 biztanle baino gehiagoko udaletan baldin badaude, edo

1.499 metro koadrotan, Nafarroako Foru Komunitateko gainerako udaletan baldin badaude, salbu eta 12.000 biztanletik gorako hirigune batetik 10 kilometro baino gutxiagora dagoen herri batean dauden saltokiak, horiei 2.499 metro koadroko azalera salbuetsia aplikatuko baitzaie.

b) Biltegi, tailer, labe eta produkzio-eremueta-rako azalera, salmenta-azalera murriztuaren eta salmenta-azalera egiazkoaren artean dagoen erlazioaren proportzioan murriztua.

c) Salmenta-azalera murriztuari honako irizpide hauen arabera aplikatzekoa den koefiziente biderkatzailea aplikatzearen ondoriozko aparkaleku-azalera:

– Aparkalekua erabiltzaileari fakturatzten dion saltokiak: 1.

– Fakturatu ezean, salmenta-azalerako metro koadroak zati aparkaleku-azalerako metro koadroak egitetik ateratzen den koefizientea aplikatuko da.

– Saltoki espezializatu guztiei 0,5eko koefizientea aplikatuko zaie orobat.

Koefizientea aplikatzeari dagokionez, saltoki espezializatutzat jotzen dira noizean behin kontsumitzen diren produktu-multzo jakin batzuk nagusiki saltzen dituztenak; zehazki, honako hauek: altzariak eta etxeko gauzak, ekipamendu pertsonala, brikolajea, jostailuak, kirolak eta aisialdia.

8. artikulua. Likidazio-oinarria.

1. Likidazio-oinarria zerga-oinarriari 2. idatz-zatiak ezarritako koefizientea eta 3. idatz-zatiak ezarritako murrizketa, egoki bada, aplikatzearen ondoriozko emaitza izanen da.

2. Saltokiaren proiektzio horizontalak hartzen duen lurzoru-azaleraren arabera, honako koefiziente hauek aplikatuko dira:

- 2.500 m² baino gutxiago: 0,5
- 2.501etik 5000ra bitartean: 0,7
- 5.001etik aurrera: 1.

3. Altzari-salmentaren, saneamendu-produktuen, eraikuntzako arotzeriaren eta brikolajearen arloetan diharduten subjektu pasiboen likidazio-oinarria 2. idatz-zatia aplikatuz lorturiko emaitzaren gain ehuneko 60ko murrizketa aplikatuz lortuko da.

9. artikulua. Karga-tasa.

Karga-tasa metro koadro bakoitzeko 12 eurokoa (1.997 pezeta) izanen da.

10. artikulua. Tributu-kuota.

8. artikuluaaren arabera kalkulaturiko likidazio-oinarriari aurreko artikuluko karga-tasa aplikatuz lortzen den emaitza izanen da zergaren tributu-kuota.

IV. KAPITULUA **Zergaldia**

11. artikulua.

Zergaldia urte naturala izanen da. Irekitzeko edo handiagotzeko baimena urtarrilaren bata baino beranduago ematen bada, zergaldia kontatuko da baimen horren egunetik urtearen azken egunera arte. Saltokia itxi egiten bada, zergaldia urtearen lehen egunetik itxiera-egunera artekoa izanen da.

V. KAPITULUA

Zergaren kudeaketa eta zergadunen errolda

12. artikulua. Zergadunen errolda.

Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak urtero zergako subjektu pasiboen errolda bat egin eta argitaratuko du Foru Komunitateko Aldizkari Ofizialean, zergaren aplikaziorako beharrezkoak diren haien datuekin, zeinak prestatuko baitira horiek aitortu ondoren administrazioak behar bezala egiaztatu eta gero.

Errolda horretan bilduko dira subjektu pasiboaren merkataritza-identifikazioko datuak, eta baita sozietate-kapitalaren osaera eta titulartasunari buruzkoak, merkataritza-banaketaaren sektorean Foru Komunitatean eta Foru Komunitatetik kanpo daukan partaidetza-kuotari buruzkoak, eta saltoki handien jardura arautzen duen foru legeak eskatzen dituen guztiak ere.

13. artikulua. Aitorpena.

1. Zerga hau aplikatzen zaien saltokiak ireki baino lehen, horren subjektu pasiboek aitorten bat aurkeztu beharko dute Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuan. Aitorpen horretan, zerga aplikatzeko beharrezkoak diren datu guztiak, zeinak erregelamendu bidez zehaztuko baitira, bilduko dira.

2. Subjektu pasiboek jakinarazi eginen diote aipaturiko departamentuari gertatzen diren eta zergako elementuetan eragiten duten aldaketa guztiak, halako moldez non, egiaztatuak izan ondoren, kudeaketa-prozesuetan sar daitezten, eta likidazioan aldaketak eragin ditzakete, haien arabera ez bada. Likidazio gehigarri bat egin behar izanen balitz, subjektu pasiboari jakinarazi-

ko zaio, eta erregelamenduak ezarritako epean ordaindu beharko du.

3. Saltokia ixten bada, aldez aurretik Ekonomia eta Ogasun Departamentuari jakinarazi beharko zaio, behar den likidazioa egin dezan. Likidazio hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio.

14. artikulua. Ordainketa.

1. Erregelamenduz ezarritako baldintzetan ordainduko da zerga.

2. Irekiera-urteari dagokion zerga-kuota kuotaren urte osoko kuota hura amaitu arte geratzen diren egunen kopuruaren arabera hainbanatuz lorturiko emaitza izanen da.

3. Itxiera-urteari dagokion zerga-kuota urte osoko kuota zergaldiaren hasieratik itxiera-egunera arte igarotako egunen kopuruaren arabera hainbanatuz lorturiko emaitza izanen da.

4. Tributu-zorra geroratu eta zatikatu ahalko da, Nafarroako Ogasuna titular deneko tributukredituetarako ezarritako izaera orokorreko baldintzetan.

15. artikulua. Kudeaketa eta ikuskapena.

1. Zerga kudeatu eta ikuskatzea Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio.

2. Nafarroako Gobernuaren Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak eta Nafarroako udal eta gainontzeko toki erakundeek laguntza emanen dute, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari berehala eta inolako eskakizunik behar izanik gabe zerga kudeatu eta ikuskatzeko beharrezkoak diren datu, baimen eta informazio guztiak helaraziz.

VI. KAPITULUA
Zehapen-araubidea

16. artikulua. Arau-haustea, zehapenak eta preskripzioa.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritako araubide orokorra aplikatuko da.

VII. KAPITULUA
Araubide juridikoa

17. artikulua. Egintzak inpugnatu eta berrikus-tea.

Zerga kudeatu, ikuskatu eta biltzeko egintzak eta, halaber, horien inpugnazioa eta berrikuspena, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritako printzipioen eta araubidearen arabera izanen dira.

Xedapen gehigarria

Lege hau aplikatzeko suertatzen zaien saltoki irekietako titularrek legeak indarra hartzen duenetik hilabeteko epean aurkeztu beharko dute hasierako datu-aitorpena, Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zergadunen errolda eta urteko epearen hainbanatzeari dagokion likidazioa egin ditzan.

Azken xedapenak

Lehena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuari eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariari esku ematen zaie foru lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Foru Legea, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Lurzoruaren araubideari eta hirigintza-antolamenduari buruzko 1956ko maiatzaren 12ko Legeak lurzoruaren udal-ondarea era zedila xedatu zuen, "herriguneeen zabalkundeari aurrea hartu eta hori teknikoki eta ekonomikoki garatu eta bideratzeko". Besterentzeetarako, oro har, enkante publikoa ezarri zuen, baina salbuespenak ere egin zituen, zuzeneko, doako edo prezio baxuago baten trukeko lagapen baimentzeko zenbait kasutan, hala nola helburu kultural publikoetarako, etxebizitza ultraekonomikoetarako edo enkantetan lizitaziorik ez dagoenerako (153 eta 154. artikulua).

Enkante bidezko besterentze-modu horri eutsi egin zion Lurzoruaren araubideari eta hirigintza antolamenduari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuko 168. artikulua. 1986ko apirilaren 18ko Toki araubideari buruzko Legeko xedapenek arautzen zuten enkante hori; zehazki, ondare-izakerako ondasunak besterentzean enkantea erabil zedila ezarri zuen, arau orokor gisa, 80. artikulua.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak ezarri zuen, 133. artikuluan, enkantea izanen zela toki entitateen ondasunak besterentzeko prozedura orokorra, trukearen eta salbuespen gisako zuzeneko besterentzearen kasuetan izan ezik.

Enkante bidezko besterentzearen tradizio hori ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege

Dekretuak hautsi zuen; horren bidez, Lurzoruaren araubideari eta hirigintza antolamenduari buruzko Legearen testu bategina onetsi zen, eta haren 284. artikulua arautu zituen babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitze edo interes sozialeko beste erabilera batzuetarako lurzoruaren udal-ondarearen ordaindusko besterentzeak. Lehiaketa-sistemaren bidez arautu zituen, eta, xedatuaren arabera, prezioa ez zen izanen zegokien egiazko aprobetxamenduaren hirigintza-balioa baino baxuagoa. Lehiaketatik kanpo utzi ziren babes publikoko etxebizitzak sustatzen dituzten ongintzako edo izaera sozialeko erakundeentzako lagapenak. Uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 274. artikulua eta hango xedapen gehienak ere ekainaren 20ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritako edukia- ren eta araubidearen ildoari jarraitu zitzaizkion.

Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 20ko 61/1997 epaiak lurzoruaren udal ondarea besterentzeko araudi osoan izan zuen eragina; hain zuzen ere, konstituziokontrako eta deusez deklaratu zuen, besteak beste, ekainaren 20ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuko 284. artikulua jadanik aipatua. Xedapen indargabetzaile bakarrek lehen idatz-zatia deusezteak, apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuari dagokionez –hain zuzen ere, horren bidez onetsi zen Lurzoruaren araubideari eta hirigintza antolamenduari buruzko Legearen testu bategina–, hark indarra berreskuratzea ekarri zuen; horrela, bada, Lurzoruaren udal ondareaz denaz bezainbatean, haren 168. artikulua ere indarra berreskuratzea ahalbidetu zuen. Xedapen horren arabera, "Toki Entitateen lursailak besterentzeko enkante publikoa egin beharko da". Hala ere, xedapen horrek ez zuen indarrik izan Nafarroako Foru Komunitatean, bertan arau berekia baitzegoen: uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea.

Toki entitateen ondasunak besterentzeko prozedura orokorra enkantea zenez, arau horiek salbuespen bat egiten zuten lurzoruaren udal ondarekoak izanik babes publikoko etxebizitzak eraikitze edo interes sozialeko beste xede batzuetarako erabiltzekoak zirenekin. Horrela, ordenamenduaren interpretazio sistematiko eta koherente baten bitartez, posible zen ondorioztatzea ezen, aipaturiko ondasunak xede horietarako erabiltzen ez zirenean, besterentzea enkante publikoaren prozedura orokorraren bitartez egin

behar zela, eta ez salbuespenekoaren bitartez, zeina legez ezarritako kasuetara mugatu behar baitzen. Arauari buruzko ikusmolde horixe bera ondoriozta daiteke, 271. artikuluko 2. idatz-zatiaren edukitik, "hirigintza-planeamenduaren arabera babes publikoko araubideren bati edo interes sozialeko beste erabilera batzuei loturiko etxebizitzak" eraikitzeke xedeekin bateraezina den hirigintza-sailkapena daukaten lursailak besterentzeari dagokionez; izan ere, kasu horretan arauak lehiaketaren eta enkantearen artean aukera egiten uzten du. Beraz, lehiaketaren metodoa, salbuespen gisakoa, kasu horietarako baizik ez bada, enkanteak izan beharko luke besterentzea egiteko modua kasu horiek gertatzen ez direnean, hau da, babes publikoko etxebizitzak edo interes sozialeko erabilerak ez direnean; izan ere, kalifikazio hori ez dagokio planeamenduaren edozein xederi.

Administrazioak, besterentze-prozeduren objektibazioaren aurrean betiere bere erabakialmena eta irizpen-askatasuna areagotzen duten formulen aldekoa izaki, helarazi zituen interpretazio-zalantzak ikusirik, Nafarroako Parlamentuak lursail publikoen besterentze-araubidearen esparruan ekarpen garrantzitsua egin zuen, hirigintza-planeamenduak ematen dien erabileraren arabera. Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeke prozesua arautzen duen abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legeak lursailen erabileraren arabera bereizi ditu besterentze-prozedurak. Etxebizitzetarako ondasunak lehiaketa publiko, lehiaketa-enkante, enkante, zuzeneko lagapen, Administrazioen arteko lagapen edo trukatzeko bidez besterentzea arautzen da. Etxebizitza librearen araubideko etxebizitza-erabilerarako edo jarduera ekonomiko edo aukerakoetarako egiten diren besterentzeak enkante bidez eginen dira betiere.

Lurralde-aplikazioari dagokionez, araubide berri hori Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremura mugatzen da, eta kontraesanean dago Foru Komunitate osoan indarra duen 10/1994 Foru Legeko 273. artikulua xedaturikoarekin. Ondorioz, sistemaren zehaztasun eta bermerik handienak Nafarroako Gobernu eta Eguesibarko udal-dermioaren zati batera mugaturiko esparru bat ukitzen dituzte. Alabaina, udal-dermioaren gainerakoan eta beste edozein udaletan diskrezionalagoak eta objektibotasun gutxiagokoak diren irizpideak aplikatuz jardun dezakete, askoz ere balio ekonomiko handiagoa daukaten lursailen gain. Hori guztia dela-eta, beharrezkoa da bi araubideen arteko egokitzapena, toki entitateek lurzoruaren udal ondareko lursailak besterentzean Parlamentuak Nafarroako

Gobernuarentzat ezarri dituen baldintza beretan jardun dezaten. Horretarako, etxebizitza libreak eraikitzeke edo edozein motatako jarduera ekonomikoak instalatzeko izateagatik ondare-balio handiagoa daukaten lursailak besterentzeko, enkante publikoa berreskuratu behar da.

Artikulu bakarra. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua honela idatzita geratuko da:

"273. artikulua. Lagapenak.

1. Udalaren lurzoru-ondareko terrenoak besterentzeko honako arau hauek beteko dira:

a) Hirigintza-planeamenduaren arabera etxebizitzetarakoak diren ondasunak besterentzeko honako prozedura hauetako bat jarraituko da:

1go. Lehiaketa publikoa edo enkantea.

2gn. Zuzenean, Foru Komunitateko titulartasun publikoko sozietate instrumentalei.

3gn. Lehiaketa bidez irabazi-asmorik izan gabe babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzaren eraikuntza sustatu eta sustapenaren bideragarratasuna bermatzeko bitartekoak eta esperientzia dauzkatela frogatzen duten laguntza-, gizarte- edo sindikatu-izaerako erakunde diren eskatzaileei. Kasu horretan, behar diren neurriak hartuko dira babes publikoko araubideari loturiko etxebizitzaren azken hartzaileek etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

4gn. Administrazioen arteko lagapenak, hurrengo artikuluan arautuak.

Besterentzearen baldintzetan galdutako da hura zilegitzen duten helburuak eta etxebizitza eskuratzeko eskatutako betebeharrak bete daitezela; haien artean, itzulketa, lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera-eskuratzeko eskubidea ezarri ahalko dira.

b) Planeamenduan industrien erabileretarako ezarritako lurak besterentzeko enkante publikoari emanen zaio lehentasuna, toki entitateei aplikatzeko den araubideari jarraituz.

Enkantea esleitu gabe amaitzen bada, berriro ekinen zaio besterentzeari. Bigarren enkante horretan esleipen-hartzailerik ez badago, besterentzea zuzenean egin ahalko da, lizitazioko prezio tipoaz, eta eraikina sei hilabeteko epean hasi eta bere ezaugarrien arabera epean, inoiz ez bi urte baino gehiagotan, bukatzeko betebeharra ezarritik.

Aparteko kasuetan, letra honetan aipatzen den lurra interes publikoko erabilera edo proiektuetara-

ko erabili nahi denean, udalek, beren eskumenak erabiliz, aipatu lurak besterendu ahal izanen dituzte aurreko a) letran ezarritako bestelako prozedurei jarraituz.

c) Ekipamendu eta zerbitzu publikoetarako terrenoak zuzenean eta dohainik laga ahalko zaizkie instalazioen eraikuntza eta kasuan kasuko zerbitzua ematea euren gain hartzen duten erakunde ofizialei.

Partikularrek irabazi-asmorik gabe eman ditzaketen zerbitzuak eta ekipamenduak baldin badira, besterentzea egin ahalko da zuzenean eta dohainik, eta itzulketa-klausula izanen du bost urteko epean instalazioa ez egitearen edo hurrengo hogeitun urteetan zehar hura ez mantentzearen kasurako.

2. Erabilera industrialetarako Foru Administrazioaren lur publikoak besterentzeko enkante publikoari emanen zaio lehentasuna.

3. Erabilera merkataritzazkorako edo etxebizitza libreak eraikitzeko Nafarroako Administrazio Publikoen lur publikoak besterentzea enkante publikoaren bidez egingen da.

4. Besterentzeen prezioak ezin izanen dira izan besterentzen den aprobetxamenduaren hirigintza-balioa baino baxuagoak.

Enkante bidezko besterentzeetan, hasierako prezioa gutxienez hirigintza-balioa izanen da, eta horri gehituko zaizkio planeamendu, urbanizazio eta kudeaketaren ondoriozko kostu proportzionalak, eta egokitzerako beharrezkoak diren ekintza

administratibo eta materialetatik eratorritzen diren guztiak, eraiki zen urtetik iragandako urteen arabera dagokion balio-galeran gutxituz; betiere, teknikari aditu baten balorazioaren bitartez egin ahal izanen da.

5. Etxebizitzetarako terrenoak besterentzeko baldintza-ordietan zehaztuko dira urbanizazio eta eraikuntza obrak egiteko gehieneko epeak, etxebizitza eta lokalak saldu edo alokatzeko prezio eta baldintzak, etxebizitzak eskuratuko dituztenen ezaugarri sozioekonomikoak, etxebizitzaren kalitatea arkitekturaren eta zerbitzuen ikuspegitik, eta proposamenen bideragarritasuna bermatzeko bitarteko tekniko eta ekonomikoen ezaugarriak”.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrik gabe gelditu dira foru lege honen kontra doazen maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak eta, bereziki, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 271. artikulua bigarren lerroa da.

Azken xedapenak

Lehena. Esku ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariari Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzaten.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoen gaineko zerga gisa ordaindutako kuoten kenketari buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoen gaineko zerga gisa ordaindutako kuoten kenketari buruzkoa".

Biltzarrak, 2001eko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako foru lege proposa-

mena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, hondakin berezien kudeaketari buruzko irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea aldatzekoa".

Biltzarrak, 2001eko azaroaren 20an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako foru lege proposa-

mena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako etorkinak gizartean integratzeko plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001ko azaroaren 26an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2001eko ekainaren 25eko Erabakiaren bidez, Nafarroako etorkinak gizartean integratzeko plana bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikuluekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako etorkinak gizartean integratzeko plana tramitera onartzea.

2. Hari buruzko iritzia Gizarte Gaietako Batzordeak emanen duela xedatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

(Oharra: Planaren testua foru parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001ko azaroaren 26an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2001eko azaroaren 19ko Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikuluekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean arazo sozialak dituzten haur eta nerabeei laguntzeko plana tramitera onartzea.

2. Hari buruzko iritzia Gizarte Gaietako Batzordeak emanen duela xedatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

(Oharra: Planaren testua foru parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Erriberan bertaratzeko unibertsitate-ikasketak ezartzea nahi duela

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2001eko azaroaren 20an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Erriberan bertaratzeko unibertsitate-ikasketak ezartzea nahi duela".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Erriberan bertaratzeko unibertsitate-ikasketak ezartzea nahi duela

1- Nafarroako Parlamentuaren borondatea da ezar daitezela Nafarroako Erriberan, Nafarroako

Unibertsitate Publikoaren mendean, bertarakotzeko unibertsitate-ikasketak. Horretarako aplikatu beharreko unibertsitate-ereduak gizarteari prestakuntza unibertsitarioa eman beharko dio; horrek eskualdeko maila kulturala handitzen lagunduko du eta garapen ekonomikorako ere lagungarri izanen da.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko gizarte-kontseiluari eskatzen dio ikasketa horiek ezartzeko konpromisoa har dezala; izan ere, hori da Nafarroako gizarteak parte hartzen duen organoa, gizartearen behar eta kezken eta akademiaren arteko elkargune izaten saiatzen dena.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko gobernu batzordeari eskatzen dio aintzat har dezala unibertsitate-ikasketak Erriberan hurrengo 2-3 urtetan gehien jota jartzeko aukera; halaber, zenbatu dezala beharrezko inbertsioek zenbat egingen duten, eta konpromiso hori jaso dezala ekintza-planean.

Adierazpen politikoa, Bake Nobel saridun eta UNESCOren borondate oneko enbaxadore Rigoberta Menchú Tum andreak, Guatemalan behin eta berriz gertatzen diren giza eskubideen kontrako erasoak salatzeke, Entzutegi Nazionalean aurkeztu duen eskaerari sostengua emateko

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2001eko azaroaren 26an egindako bilkuran, hurrengo adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere sostengua berresten dio Bake Nobel saridun, UNESCOren borondate oneko enbaxadore Rigoberta Menchú Tum andreak –guatemalar indigena eta biktima bera– Espainiako Estatu-ko aginte judizial eskudunetan aurkeztu duen demandari.

2. Guatemalan giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren kontra behin eta berriz gertaturiko eraso larri eta masiboak direla eta egin den justizia eskeari elkartasuna adierazten dio oraingoan ere.

3. Entzutegi Nazionaleko Zigor arloko II. Salak autoan eman duen ebazpenaren aurrean harridura azaltzen du, kasuarekin batera atzera botatzen baitu justizia lortzeko aukera ere, justizia Guatemalako biktimentzat ez ezik Espainiako nazionalitatea zuten biktimentzat ere, hala nola Faustino Villanueva eta Andrés Lanz nafarrentzat. Batez ere gertaerak argitzea eta ahaideei sostengua ematea da kasu hauetako eskaera.

4. Historia Argitzeko Batzordeak (CEH), Nazio Batuek eta horien idazkari nagusi Kofi Annan jaunak eskatuta sortutakoak eman zituen oharrak gogoraraztea. Batzordeak aipatu zuen Guatemalako justizia makurtu dela botere politikoarekin eta hori, garrantzizko kasu batzuetan, genozidioko krimenak leporatu zaizkien pertsonak betetzen dutela, Guatemalan zigorgabetasuna eta justizia eza iraunarazi eta sustatzen duten bidenabar. Aipatutako egoerak beharrezko egiten du nazioarteko justizia instantzietara jotzea, kasu honetan Espainia eta Belgikakoetara.

5. Guatemalako kasuan jurisdikzio unibertsalaren printzipioa ezartzeko eskaera berritzen dute, honako txosten hauen edukian oinarriturik: 1) CEH, Historia Argitzeko Batzordea, Nazio Batuen sostenguarekin; 2) REHMI txostena, Memoria Historikoa Berreskuratzea, Guatemalako Artzapezpikutzaren Giza Eskubideen Batzordeak egina eta Juan Gerardi Monsinorearen heriotza ekarri zuena, berak aurkeztu eta bi egunera; 3) Nazio Batuen epaile eta abokatuaren independentziaren arloko errelatore bereziaren txostena; eta 4) MINUGUAREN txostena (Nazio Batuen Guatemalako Misioa).”

F saila:
GALDERAK

Udako Euskal Unibertsitatearen inguruko zenbait jarduketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Udako Euskal Unibertsitatearen inguruko zenbait jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubiok andreak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, ondoko galderak egin dizkiot Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkidan:

Aurrekariak.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, orain gutxi, neronek aurkeztutako mozio bat onetsi zuen, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatu zen berriro hel diezaion Udako Euskal Unibertsitatearekin zuen lankidetzaren hitzarmenari; orobat, Nafarroako Gobernua premiatu zen behar diren neurriak har ditzan Udako Euskal Unibertsitateak Iruñean bere jarduerak behar bezala egin ahal izateko beharrezkoak dituen lokal publikoak izan ditzan.

Dirudienez, Nafarroako Gobernua eta UEUren arteko lankidetzaren hitzarmenaren etetearen arrazoia izan da, osoko bilkurako aktetatik ondoriozta daitekeenez, NUPeko errektore Pérez Prados jaunak Nafarroako Gobernuko Lehendakari Sanz jaunari igorritako eskutitz bat. Eskutitz horretan hau adierazten zen: "egungarrietan sarri samar ira-

kur daiteke... publizitate nahasgarria, zenbait elkarterek goi mailako ikastaro jakin bat iragartzen baitute, edo goi mailako ikasketen zentrotzat jotzen dute haien burua. Badago, egon, "helduentzako unibertsitatea" izenpean zenbait jarduera abian jarri duen elkarterik ere... "Goi mailako" izen horrek, eta "unibertsitate" izenak noski, publizitate-mezuaren hartzaileari helarazi nahi dion mezua da unibertsitate mailako titulu eta elkarterek direla... Egokia dirudi administrazioak mekanismoak jar ditzala horrelako publizitatea oztopatu edo ekiditeko... Horregatik guztiagatik, arren eskatzen dizut zuk ordezkatzeko duzun administrazioak behar diren ekintzak abian jar ditzala jarduketa horien aurka..."

Zenbaitek uste duenez, nik adibidez, UEU ez da Pérez Pradosek aipatutako horietakoa; izan ere, Nafarroan 1992tik dago legeztatua "Asociación Cultural Udako Euskal Unibertsitatea" izenarekin, eta 1997an aukerako kredituen homologazioa lortu zuen, EHUen lehenbizi eta NUPen hurrengo. Halaber, elkarte horrek berrehun titulu baino gehiago argitaratu du, denak ere unibertsitate esparrukoak, goi mailako ikasketetan erabiltzekoak. Ordea, datu horiek guztiak ezagututa ere, Nafarroako Gobernuak amaitutzat eman zuen 1990ean sinatutako hitzarmena. Hain zuzen ere, hitzarmen horri heltzeko eskatu du berriro Nafarroako Parlamentuak, Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak aurkezturiko mozioa onetsiz.

Hori guztia dela-eta, hurrengo galdera hauek erantzutea eskatzen dugu:

1.- Pérez Prados jaunak Sanz jaunari 1999ko azaroaren 30ean igorritako eskutitzaren bidez salatutako jardueraren mota horren aurka, zer ekintza jarri ditu abian Nafarroako Gobernuak? Zer elkarte ikertu dira edo zer elkarteengana jo da? Noiz izan da? Zeintzuk izan dira emaitzak?

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik neronek aurkeztu eta Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeko, hau da, UEU elkar-tearekin sinatua zeukan lankidetzeta-hitzarmenari eutsi eta hitzarmen horretara bideraturiko aurre-kontu-kontusaila urtero Kontsumoko Prezioen Indizearen araberako gutxieneko neurrian gehitzeko 2001erako eta hurrengo urteetarako, eta,

halaber, behar diren neurriak hartzeko UEUK Iruñean bere jarduerak behar bezala egin ahal izateko beharrezkoak dituen lokal publikoak izateko bitartekoak jartzeko? Baiezkoan, nola eta noiz? Ezezkoan, zergatik?

Iruñean, 2001eko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Sare publikoko liburutegien ordutegiari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak sare publikoko liburutegien ordutegiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin diot Nafarroako Gobernuko Hezkun-

tza eta Kultura kontseilariari idatziz erantzun die-zadan:

Sare publikoko liburutegiak funtsezko tresnak dira, edo hori behar lukete behintzat, Nafarroako eskualde guztietan bizi diren pertsonen prestakuntzarako. Horregatik, oso da garrantzitsua ordutegiak nahiz giza eta gauza baliabideak egokitzea zerbitzatzen dituzten herritarren beharretara, eta ez alderantziz.

Horregatik guztiagatik, hona gure galderak:

1.- Saren publikoan, zein da Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen liburutegien ordutegia?

2.- Zer arazo daude liburutegiak larunbatetan ireki ahal izateko?

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Lizarrako Valmayor kaleko orube bati buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña

Errazti Esnalek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin diot Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezadan: Foru gobernua Lizarrako Valmayor kaleko orube baten jabe zen; hain zuzen ere, UE 14.3 unitateko 1.3 poligonoa den horrena.

Orube hori dela eta, hau jakin nahi dut:

- Zer adjudikazio sistema erabili du foru gobernuak? Orube hori enkante publikora atera du, saldu egin du...? Zehaztuta nahi dut jarraitu den prozedura, bai eta adjudikazio horren bidez lorturiko prezioa.

Iruñean, 2001eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak komunikabide batzuei emaniko laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin diot Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari, idatziz erantzun diezadan:

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako

Zuzendaritza Nagusiak, orain gutxi, laguntza ekonomikoak eman dizkie zenbait komunikabideri. Hau jakin nahi dut:

- Zer irizipide jarraitu ditu aipatu zuzendaritzak Diario de Navarrari laguntza ekonomikoa emateko? Zehaztuta nahi dira laguntza emateko erabili diren baremoak.

- Zer irizipide jarraitu ditu Diario de Noticiasi laguntza ekonomikoa emateko? Zehaztuta nahi dira laguntza emateko erabili diren baremoak.

- Zer arrazoi teknikok eraginda kendu dio Gobernuak Egunkariako Nafarkaria eranskinari orain arte ematen zion laguntza?

Non eta nork hartu du erabaki hori?

Zehaztuta nahi dira erabilitako baremoak.

- Zer arrazoi teknikok justifikatzen dute Euskal Herria Irratiari laguntza nabarmen gutxitzea?

- Zer irizipide erabili dira Ttipi Ttapa aldizkariari emaniko laguntzak gutxitzeko?

Iruñean, 2001eko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuaren egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuaren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin dut, idatziz erantzun diezadaten:

Hori horrela, hau jakin nahi dut:

1.- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuak zerbitzuburu bat eta guardia lokalizatueta aritzen diren bi alboko pediatria ditu. Hori ez da nahikoa 700 erditzeri (100 zesarea) eta Tuterako eskualdeko 14.000 hau-

rrei arreta emateko. Orain, guardia lokalizatuak ordezkoko pediatria batek egiten ditu.

Reina Sofía Ospitaleko Pediatria eta Neonatologia Zerbitzuan, guardietan medikuak bertan egon daitezten, plantilla egokitu egin beharko litza-teke. Izan ere, giza baliabideak gutxi dira eta ahi-tuak daude, eta eskualdeko herritarrei zerbitzua emateko egokiagoak diren baliabidez hornitu behar da plantilla: gutxienez ere, bost pediatria beharko lirakeke bermatzeko Pediatria eta Neonatologiako zerbitzua etengabea eta egokia izanen dela.

Horregatik guztiatik, hauek jakin nahi dira:

1.- Reina Sofía Ospitaleko Pediatria Zerbitzua- ren giza-baliabideen urritasuna ikusita, zer neurri ari da hartzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua eta zer neurri hartu asmo ditu ospitale- zerbitzu hori giza baliabide askiz hornitu eta, hala, haurren osasun beharrei eta jaio berriei arreta eman ahal diezaien?

2.- Edozein ordutan pediatarren bat egoteko nahikoa pediatria ez egotearen ondorioz Obstetri- zia Zerbitzua ixteko arriskua izan al du kontuan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak?

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Ber- mejo

Nafarroako Ospitaleko Bularretako Patologia Zerbitzurako kontsulta zain daudenen zerrendei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Nafarroako Ospitaleko Bularretako Patologia Zerbitzurako kontsulta zain daudenen zerrendei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, hurrengo galdera egin dut, idatziz erantzun diezadaten:

Nafarroan bularreko 220 tumore izaten da urtean. Orain gutxi, Osasun Departamentuko arduradunak pozik agertu ziren, bizirik irauten duten gaixoen kopurua % 15 igo baita bularreko minbiziaren antzemate goiztiarrerako programaren ondorio -1990ean hasi zen.

Dirudienez, biltzar honetako talde parlamentarioek jaso ditugun salaketen arabera, Bularretako Patalogiaren Zerbitzuko gaixoek hamar hilabeteko atzerapenarekin izaten dituzte bularreko minbizia izan ondoko azterketak; ordea, gaixotasuna diagnostatu ondoko bost urteetan, azterketak sei hilabetero egitea gomendatzen da.

Atzerapenak kekak eragiten ari dira, eta jarri den konponbidea izan da gaixoak Eriaren Arazoetarako Zerbitzura bidaltzea idatzizko erreklamacioa egin dezaten.

Emakumeek geroz eta gehiago itxaron behar dute osasun laguntza jasotzeko; beste azterketa batzuk ere atzerapenez egiten ari dira, hala nola ginekologia zerbitzuarenak, zeinak, urtero egin beharrean, hiru urtetik egiten baititu azterketak. Horrek ordaina izan dezake hurrengo urteetan; hau da, denbora funtsezkoa denez zenbaitetan, garaiz antzeman gabeko patologiak areagotu egin daitezke, eta hori baliabideekin eta pertsonen osasunarekin ordaindu beharko da.

Hori horrela, hauek jakin nahi ditut:

1.- Zenbat emakume dagoen bularreko minbiziaren azterketa egiteko zain Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzuaren barrenean dagoen Bularretako Patologia Zerbitzuan.

2.- Zenbat emakumeri diagnostikatu zaion azken bost urteotan bularreko tumorea.

3.- Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzuaren barrenean dagoen Bularretako Patologia Zerbitzuan zenbat itxaroten den gehienez eta zenbat batez beste.

4.- Atzerapen horiek horrela, zer giza eta gauza baliabide jartzen ari da Osasun Departamentua?

Iruñean, 2001eko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontseiluko kide bat, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari dena, izendatzea

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko azaroaren 20an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontseiluko kidea, Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria dena, izendatzea:

– Francisco Javier Martínez Chocarro jauna
Biltzarreko Erregelamenduaren 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---